

Hona hemen azaroan Euskal Herriko herri desberdinetako umeez beraien toki aldizkarietako jolasen txokoan aurkitu dituzten jolas desberdinen soluzioak.

Bilatu beraz, guztien artean zure herriko aldizkarian proposatu zaizkizun jolasei dagozkienak eta dagoen aukera zabala ikusita, gehiagoren gogoarekin geratu bazara, zure aldizkariaren hurrengo alea iritsi bitartean jolasten jarrai dezakezu gure [jolas parkean](#).

Hau beldurra!

Azaroa gainontzeko hilabeteak baino beldurgarriagoa da, Gau Beltza eta Halloween izaten direlako, besteak beste. Egun berezi horietako elementu hauen artetik lau bi aldiz ageri dira, eta beste bi, berriz, hiru aldiz. Azpimarra itzazu.




Animalia hori zein den badakizu, ezta? Sekulako puzkarrak botatzen ditu bere burua arriskuan ikusten duenean... Bere izenak T, O, E, F, M eta A letrak ditu, eta horiek in sudoku hau osatu behar duzu. Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

E	A	O	F	M	T
F	M	T	O	A	E
A	T	E	M	F	O
M	O	F	E	T	A
T	E	M	A	O	F
O	F	A	T	E	M

Labirintoa

Amona Miren azokara doa. Gaztainak, udareak, kuiak eta mandarinak nahi lituzke, eta hurrenkera horretan erosiko ditu. Amona Miren dagoen leihotik hasi, eta saskiraino iritsi behar duzu, sekuentzia horri jarraituz beti. Mugitu laukiz lauki, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ez diagonalean.

gaztaina udarea kuia mandarina



Batu hemen laukiz lauki bildu dituzun hizkiak eta esaera zahar bat agertuko zaizu.





HamaiKakoa

Goiko eta beheko irudi hauek ez dira guztiz berdinak. Erreparatu ongi eta bien arteko aldeak ikusiko dituzu: hamaika dira guztira.



Bakoitzari berea

Hona hemen jostun tresna batzuk. Lotu bakoitzari bere izena.



Haria: 9. Klariona: 1. Titarea: 4. Jostorratza: 3. Kremailera: 6. Kateorratza: 5. Botoia: 8. Guraizea: 2. Orratz buruduna: 7.

Handienetik txikienera

Ordena itzazu armiarna hauek handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 10.



Itzala

Beheko hegazti migratzaile horiek berandu samar dabiltza, ezta? Beren kide guztiak joan dira dagoeneko! Aurki ezazu beren itzal zuzena.

